

Diabetiko, zeliako eta beganoentzako supermerkatu bat sortuko dugu. Sortuko den denda fisikoa izango da, baina denbora batera dena ondo badoa eta aurreikuspenak bete badira, seguruekin denda on-line modura zabalduko litzateke.

Sare sozialetatik publizitatea zabalduko dugu, kontuak sortuz, eta salgai ditugun produktuen berri emanez. Internet bidez, jendeari adieraziko diogu, nahiz eta janari zehatz hauen beharrik ez izan, gure produktuekin dieta osasuntsu bat egin daitekeela.

Horrez gain, astean behin 2 orduko sukaldaritza saioak eskainiko dizkiegu gure bezeroei, bertan bai pastelak, bizkotxoak eta beste hainbat produkturen errezetak ikasi eta elaboratuko ditugu. Jendea gure saioetara gertura dadin, parte hartzen duten pertsonen deskontuak oparituko dizkiegu hurrengo egunetarako, aste beteko epearekin. Horrela, bezero hauek behin eta berriro gure dendara etorriko dira produktuak erosi eta saioetan parte hartzera.

Hasiera batean langileak gu izango ginateke, dendaren hiru jabeak. Agian behar izango balitz, aurrerago beste norbait ere kontratatuko genuke.

Manexek, internet bidez eta telefono bidez beste enpresa edo dendekin komunikatzeko lana hartuko du. Lehengaiak eta bestelako produktuak lortzeko.

Mariak, dendan egingo du lan, bezeroekin eta dendako gauzak antolatzen.

Laia, marketinaz arduratuko da, banatzeaz eta baita ere interneten jartzeaz. Horrez gain, astean sukaldaritza saioak eskaintzen direnean bera arduratuko da saio horiek aurrera eramateaz.